

Uiarra edo Kontrasta ibaia: sortzetik Kontrastako Mozostias dermioraino.

Ega ibaia: Bernedoko industrialdetik Nafarroako mugaraino.

K.- EBRO IBAIAREN ARROA:

Purón ibaia: sortzetik Burgosko mugaraino.

Caicedo-Yuso edo Arreo lakua.

Barragon erreka: Arabako zati osoa.

HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

504

31/2003 FORU AGINDUA, urtarrilaren 22koa, Amurrioko udalerriko Plangintzako Ordezko Arauen Barne Erreformako Plan Bereziaren espedienteari behin betiko onespena ematea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Amurrioko Udalak, 2002ko ekainaren 7an, Barne Erreformako Plan Bereziari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, bai eta jendearen aurrean hamabost egun baliodun jartzea ere: horixe egin zuen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALaren 2002ko uztailaren 4ko 76 zenbakian eta 2002ko uztailaren 8ko El Correo egunkarian iragarki bana ipiniz.

Bigarrena.- Jendearen aurrean jartzeko epean ez zen inolako alegaziorik egin; beraz, Udalak, 2002ko ekainaren 27ko bilkuran, espediente behin-behingo onartu zuen eta Arabako Foru Aldundira bidali zuen, behin-betiko onespena eman ziezaioten. Bertan 2002ko abuztuaren 2an sartu zen.

Hirugarrena.- Plana osorik ez zegoela ikusi zenez, 2002ko irailaren 19an eta urriaren 30an bi idatzi bidali zitzaizkion udalari, aurkitutako akatsak zuzentzeko eskatuz. Udalak eskaera bete zuen 2002ko abenduaren 23an, falta ziren agiriak aurkeztu baitzituen.

Zuzenketa horrek aurrez ikusitako eraikin baten kokapena aldatu zuenez, Udalaren osoko bilkura 2002ko abenduaren 5ean egindako bilkuran agiri berriak onartu zituen, planari behin-behineko onspena emanaz.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Barne Erreformako Plan Berezi honen xedea da Ordezko Arauek (indarrean dagoen BEPB-2) zehazten duten hiri lurzuaren eremua berrantolatzea.

Bigarrena.- Aurkeztutako agiriak aztertu dira eta indarrean dauden Ordezko Arauetan eta hirigintzako arauetan zehaztutako baldintza formal eta materialak betetzen dituela ikusi da.

Horregatik guztiagatik, ditudan aginpideak erabiliz, honakoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Amurrioko udalerriko Plangintzako Ordezko Arauen Barne Erreformako Plan Bereziaren espedienteari behin betiko onspena ematea. Urco&Urbasa aldi baterako enpresa elkarteak sustatu du espediente eta Amurrioko Udalak izapidetu zuen.

Bigarrena.- Erabaki hau eta onartutako hirigintzako arautegia Arabako Lurralde Historikoko ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka, administrazio bidea amaitzen baitu, ondoren zehazten diren errekursoetako edozein aurkeztu ahaliko dute interesdunek; gainera, beren eskubideak aldeztuko bidezko irizitako beste edozein neurri ere balia daitezke:

a) Zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahaliko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, jurisdikzio horretako salan, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

b) Nahi izanez gero, aipatu errekurtsua aurkeztu baino lehen, interesdunek berraztertze errekurtsua aurkeztu ahaliko dute, eta errekerimendua gainerako administrazioek; ebazpena eman duen organoari berari aurkeztu beharko zaio, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean."

Río Uyarra o Contrasta: desde su nacimiento hasta el término de Mozostias en Contrasta.

Río Ega: desde el polígono industrial de Bernedo hasta el límite con Navarra.

K.- CUENCA DEL RÍO EBRO:

Río Purón: desde su nacimiento hasta el límite con Burgos.

El lago de Caicedo-Yuso o Arreo.

Arroyo de Barragón: Todo su tramo en Álava.

DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y URBANISMO

504

ORDEN FORAL 31/2003, de 22 de enero, de aprobación definitiva del expediente de Plan Especial de Reforma Interior PERI2 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Amurrio.

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 7 de junio de 2002, el Pleno del Ayuntamiento de Amurrio aprobó inicialmente de Plan Especial de Reforma Interior PERI2, así como someter el expediente a exposición pública por el plazo de 15 días hábiles, hecho que fue practicado mediante la publicación de los oportunos anuncios en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 76, de fecha 4 de julio de 2002, en el diario El Correo del día 8 de julio del mismo año.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no se presentaron alegaciones, procediendo el Ayuntamiento, en sesión plenaria del día 27 de junio de 2002 a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 2 de agosto de 2002.

Tercero.- Habiéndose observado que el Plan estaba incompleto, en fechas 19 de septiembre y 30 de octubre de 2002 se dirigieron sendos escritos al Ayuntamiento solicitando la subsanación de las deficiencias detectadas, lo cual fue cumplimentado el día 23 de diciembre de 2002 mediante la entrega de la pertinente documentación.

Previamente, como la subsanación citada ha conllevado el cambio de ubicación de una de las edificaciones previstas, la modificación de la nueva documentación fue aprobada, con carácter de aprobación provisional del Plan, por el Pleno del Ayuntamiento celebrado el 5 de diciembre de 2002.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan Especial de Reforma Interior tiene por objeto la ordenación pormenorizada del ámbito del suelo urbano definido por las Normas Subsidiarias vigentes como PERI2.

Segundo.- Analizada la documentación aportada se comprueba que cumple los requisitos de contenido material y formal establecidos en la legislación urbanística y en las Normas Subsidiarias en vigor.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Especial de Reforma Interior PERI2 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Amurrio, promovido por Urco&Urbasa UTE y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, junto con la normativa urbanística aprobada.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko urtarrilaren 22a.- Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

AMURRIOKO (ARABA) BARNE ERREFORMAKO
PLAN BEREZIA (BEPB2)

N1.III AGIRIA

ORDENANTZA ARAUTZAILEAK

III.1.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Edukia.

Barne Erreformako 2. Plan Berezian sartzen den lurzoru mota eta kategoria bakoitzaren erregimena arautzen dute ordenantza hauek, bai eta urbanizazio proiektuak bete beharko dituen zehaztapenak ere.

Hauek dira ordenantza horien atalak:

- Lurzoruaren kalifikazioa.
- Urbanizazio proiektuarendako baldintzak.
- Eraikuntzaren eta Erabileren ordenantzak.
- Gune bakoitzerako berariazko ordenantzak.

III.2 - LURZORUAREN KALIFIKAZIOA

2. artikulua.- Kalifikazio orokorra eta xehatua.

Lurzoruaren kalifikazio orokorra indarrean dauden udalaren ordeko arauetako zehaztapenetatik dator eta "Saikapena eta hirigintza-aren kalifikazioa" planoan dago marraztuta.

Erabilera nagusi gisa bizileku-erabilera kolektiboaren kategoria bakarrik ahalbideratzen du.

3. artikulua.- Kalifikazio xehatuaren kategoriak.

Kalifikazio xehatuaren kategoriek kalifikazio orokorretako erabilera xehatuak garatzen dituzte; 3 planoan daude adierazita.

Hona hemen zeintzuk diren:

- Tokiko bide-sistema.
- Erabilera eta jabari publikoko espazio librearen sistema.
- Familia bakarreko etxebizitza eta etxebizitza kolektiboaren bizi-tegi aldea.

Kategoria hauetako bakoitza "Kalifikazio xehekatua-Erabilera" izeneko 3. planoan irudikatzen da, eta horien erregulazioa gune bakoitzerako berariazko Ordenantzen atalean adieraziko da.

4. planoan "Lerrokadurak, Sestrak, Kotak eta Azalera" eta lehen aipatutako 3.ean, kalifikazio xehekatu desberdinen mugak grafikoki adierazten dira, alde eraikigarrien eta espazio publikoen dimentsioak murriztuz.

III.3.- URBANIZAZIO PROIEKTUEK BETE
BEHARREKO BALDINTZAK.

III.3.1. XEDAPEN OROKORRAK

4. artikulua.- Definizioa.

Urbanizazio proiektua da obra proiektu bat, xedatutako duena BEPBko xedapenak gauzatzea, batik bat bide sareari, azpiegituri eta espazio libre eta berdeguneen eremua (herri erabilera berdegune eta espazio libreak) egokitzeari buruzkoak.

Proiektu horrek Lurzoruaren Legean, Hirigintzako Plangintzaren Erregelamenduan (67.etik 70.era bitarteko artikulua) eta Plan Orokorreko Hirigintza Arauetan (2.04.01; 2.04.02 eta 3.02.12- 3.02.14 artikulua) ezarritakoa bete beharko du.

5. artikulua.- BEPB-2 planaren urbanizazio proiektuen eremua.

BEPB - N1.2 plana gauzatzeko, urbanizazio proiektu bakarra idatziko da, jabari eta erabilera publikoko alde guztiak hartuko dituen, izan ere, ekinaldi bakar batean gauzatu behar da.

6. artikulua.- BEPB - N1.2 planaren xedapenen lotzeko indarra eta horiek egokitzeko aukera

Urbanizazio proiektuak ezin izango ditu aldatu BEPBaren oinarriko aurreikuspenak. Hala ere, obrak gauzatzeko irizpide eta beharrezko tekniko zenbait ekar ditzake, eta badago plan bereziaren aurreikuspen horiek irizpide eta beharrezko horiei egokitzea, beti ere arrazoizten bada eta egokitze horrek ez badakar plan bereziak kalifikatutako eremuen hedadura aldatzea, edo lurzoruaren edo eraikuntzaren antolamendu eta erregimena aldatzea; izan ere, azken hori

Vitoria-Gasteiz, a 22 de enero de 2003.- El Diputado Foral titular del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

PLAN ESPECIAL DE REFORMA INTERIOR P.E.R.I. 2
DE AMURRIO (ÁLAVA)

DOCUMENTO N1.III

ORDENANZAS REGULADORAS

III.1.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Contenido.

Las presentes Ordenanzas regulan el régimen de cada uno de los tipos y categorías de suelo incluidos en el Plan Especial de Reforma Interior 2, así como las especificaciones que deberá cumplir el Proyecto de Urbanización.

Se estructuran en los siguientes apartados:

- Calificación del Suelo.
- Condiciones para el Proyecto de Urbanización.
- Ordenanza de Edificación y Usos.
- Ordenanzas particulares para cada zona.

III.2.- CALIFICACIÓN DEL SUELO

Artículo 2.- Calificación global y pormenorizada.

La calificación global del suelo procede de las determinaciones de las NN.SS. vigentes y se expresa gráficamente en el plano a "Clasificación y Calificación Urbanística".

Comprende como única categoría de uso dominante, la de Residencial Colectivo.

Artículo 3.- Categorías de la Calificación Pormenorizada.

Las categorías de calificación pormenorizada desarrollan en usos pormenorizados la calificación global y se representan en el Plano 3.

Tales categorías son:

- Sistema viario local.
- Sistema de espacios libres de uso y dominio público.
- Zonas residenciales de vivienda unifamiliar y de vivienda colectiva.

Cada una de estas categorías se representa en el Plano 3 de "Calificación Pormenorizada-Usos", estableciéndose su regulación en el apartado de Ordenanzas Particulares para cada zona.

En el Plano 4 "Alineaciones, Rasantes, Cotas y Superficies" y en el 3, antes citado, se señalan gráficamente los límites de las diferentes calificaciones pormenorizadas acotándose las dimensiones de las áreas edificables y de los espacios públicos.

III.3.- CONDICIONES PARA LOS PROYECTOS
DE URBANIZACIÓN

III.3.1. GENERALIDADES

Artículo 4.- Definición.

Los Proyectos de Urbanización son proyectos de obras, cuya finalidad es llevar a la práctica determinaciones contenidas en el PERI, referidas fundamentalmente a las redes viaria, de infraestructuras y acondicionamiento de las áreas de uso y dominio público (zona verde, y espacios libres de uso público).

Estos proyectos, cumplirán lo establecido en el Ley del Suelo; en el Reglamento de Planeamiento Urbanístico (artículo 67 al 70); y en las Normas Urbanísticas del Plan General (artículo 2.04.01; 2.04.02 y 3.02.12 al 3.02.14).

Artículo 5.- Ámbito de los Proyectos de Urbanización en el PERI-2.

Para la ejecución material del PERI N1.2, se procederá a la redacción de un único Proyecto de Urbanización que afecte a la totalidad de espacios definidos como de dominio y uso público, estableciéndose una etapa única para su ejecución.

Artículo 6.- Vinculación y posibilidades de adaptación en relación con las determinaciones del PERI N1.2.

El Proyecto de Urbanización, no podrá modificar las previsiones fundamentales del PERI. No obstante, podrá admitirse la adaptación de aquellas previsiones a criterios y necesidades técnicas de ejecución de las obras, siempre que se justifique dicha adaptación y no signifique modificación de las superficies calificadas por el PERI, ni alteraciones sobre ordenación y régimen del suelo o de la edificación, adquiriendo en este caso carácter de modificación del PERI, lo

ekarriko balu, hori plan partzialaren aldaketa izango bailitzateke, eta horretarako, dagokion tramitazioari jarraitu beharko litzaioke, Planeamenduko Erregelamenduaren 68. artikulua eskatzen duen bezala.

7.- artikulua. Agiriak.

Planeamenduko Erregelamenduak 69. eta 70. artikuluetan aipatzen dituen agiriak eduki beharko ditu urbanizazio proiektuak, guxtienez, eta horien artean telefonia kanalizazioaren sareari dagokionan ere bai.

8 artikulua.- Hirigintza-oztopoak ezabatzeari buruzko martxoaren 23ko 59/1981 Dekretua eta Irigarritasunari buruzko 20/98 Legea.

Hirigintza-proiektuak, bere determinazio guztietan, Eusko Jaurlaritzaren hirigintza-oztopoak ezabatzeari buruzko martxoaren 23ko 59/1981 Dekretuan eta Irigarritasunari buruzko 20/98 Legean xedaturikoa beteko du.

III.3.2. MARRAZKETA BALDINTZAK URBANIZAZIO PROIEKTUARENTZAT

9. artikulua.- Marrazketa baldintzak urbanizazio proiektuarentzat.

a) Bide sarea:

- III.3.Bide sarearen orotarako neurriak (elkarren aurrez aurreko lerrokaduren artekoak) nahitaez bete behar dira.

b) Berdegunea:

- Nerbioi ibaiarekiko paraleloa den espazio librea parke lineal zuhaztun gisa tratatuko da, Ordezko Arauen eremu fitxaren antolamendu- irizpideetan adierazten den moduan. Parke hau, etorkizunearan ibaiaren bazterrean egingo denarekin lotuko da.

III.3.3. BALDINTZA TEKNIKOAK URBANIZAZIO PROIEKTUARENTZAT

10. artikulua.- Urbanizazio lan guztiek bete beharrekoak.

Azpiegitura zerbitzuen sareen eskema planoetan adierazten diren trazaketa eta neurriak gidatzeko baino ez dira, eta horien zehaztasunak, urbanizazio proiektuak eskatzen duen azterketa eta kalkulu zehatzagoaren ondorioz, aldatu ere egin daitezke – beti ere aldaketa funtsezkoa ez bada–, baldin eta aldaketa behar bezala arrazoitzen bada.

Urbanizazio-proiektua bideratu eta onartzeko, bere dokumentazioaz gain, BEPB-2 planaren behin betiko onarpenaren ofizioa, antolamenduaren eta bide-sarearen planoak eta azpiegitura-sareen eske-ma aurkeztu beharko dira.

11. artikulua.- Bide sarearen urbanizazio proiektuaren baldintza teknikoak

2) Dagokion urbanizazio proiektuak zehaztuko ditu, BEPBk horri buruz xedatutakoari jarraituz, bide sareak izan beharko dituen baldintza zehatzak.

b) Bideen zoladuraren proiektu, kalkulu eta neurriak zehazteko, arlo horretan indarrean dagoen araudia aplikatuko da, eta beste alde batzuekin uniformetasuna lortzeko, Amurrioko udalaren irizpide orokorrak ere aplikatuko dira.

c) Hirigintza-oztopoak kentzeari buruzko araudia bete beharko da (Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 23ko 1981 Legea).

12. artikulua.- Edateko urez hornitzeko eta ureztatzeko sareen proiektuaren baldintza teknikoak.

a) Honakoak hartuko dira kontuan: beste instalazio batzuetara arte gorde beharreko tarteari buruzko baldintzak; NTE-IFA/1975 arauak ezartzen dituen gainerako arau tekniko guztiak; Industria Ministerioaren 1975ko abenduaren 9ko baldintzak; Gobernuko Presidentziaren martxoaren 15eko 928/1979 Dekretua; indarrean diren gainerako arau guztiak; eta, erakunde hornitzaileak hartutako gainerako irizpide orokor guztiak.

b) Zerbitzu sareen neurriak 300 litro/biztanle/eguneko ur- kontsumorako egingo dira.

13. artikulua.- Hondakin uren saneamenduaren eta hustuketaren baldintza teknikoak.

a) NTE/ISA/1973 arau teknologikoa eta indarrean diren gainerako arauak aplikatuko dira, Amurrioko Udalak hartutako irizpide orokorrez gain.

b) Sekzioen kalkuluak 0,5 eta 3 m/seg arteko abiadura bermatu beharko dute. Abiadura hori handitu ahal izango da egoerak horrela eskatzen badu eta hodiak estaldura oso gogorrekoak badira.

que exigirá previamente su tramitación como tal, de acuerdo con el artículo 68 del Reglamento de Planeamiento.

Artículo 7.- Documentación.

El Proyecto de Urbanización deberá comprender como mínimo los documentos indicados en los artículo 69 y 70 del Reglamento de Planeamiento incluyendo la red de canalización de telecomunicaciones.

Artículo 8.- Decreto 59/1981 sobre Supresión de Barreras Urbanísticas y de la Ley 20/98 sobre Accesibilidad.

El Proyecto de Urbanización, en todas sus determinaciones, cumplirá lo establecido en el Decreto 59/1981 de 23 de marzo, del Gobierno Vasco, sobre supresión de barreras urbanísticas y la Ley 20/98 sobre Accesibilidad.

III.3.2. CONDICIONES DE DISEÑO PARA EL PROYECTO DE URBANIZACIÓN

Artículo 9.- Condiciones de diseño para el Proyecto de Urbanización.

a) Red Viaria:

- Son vinculantes las dimensiones totales (entre alineaciones opuestas) de la red viaria.

b) Zona verde:

- El espacio libre paralelo al cauce del río Nervión, se tratará como parque lineal arbolado, tal como se indica en las directrices de ordenación de la Ficha de Ámbito de las NN.SS. Este se conectará en el futuro con el resto del parque lineal previsto para las orillas del citado río.

III.3.3. CONDICIONES TÉCNICAS PARA EL PROYECTO DE URBANIZACIÓN

Artículo 10.- Común a todas las obras de urbanización.

Los trazados y dimensionamientos indicados en los planos de esquemas de redes de los distintos servicios de infraestructura, tienen carácter indicativo, pudiendo por tanto sufrir modificaciones de detalle -nunca sustanciales- debidamente justificadas, como consecuencia del estudio y cálculo con mayor precisión que corresponda al Proyecto de Urbanización.

Para la tramitación y aprobación del Proyecto de Urbanización, serán presentados además de su documentación propia, el oficio de aprobación definitiva del PERI 2, así como los planos de ordenación, red viaria y esquema de redes de infraestructura del mismo.

Artículo 11.- Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización de la red viaria.

2) Las condiciones concretas respecto a la red viaria serán las que determine el oportuno Proyecto de Urbanización sobre la base de las especificaciones contenidas en el PERI.

b) Para el proyecto, cálculo y dimensionamiento de la pavimentación de los viales será de aplicación la normativa vigente y por razones de uniformidad con otras áreas, los criterios adoptados con carácter general por el Excmo. Ayuntamiento de Amurrio.

c) Será obligatorio el cumplimiento de la normativa sobre supresión de barreras urbanísticas de 23 de marzo de 1981 del Gobierno Vasco.

Artículo 12.- Condiciones técnicas del Proyecto de las redes de Abastecimiento de agua potable y riego.

a) Se deberán tener en cuenta las condiciones de separación a otras instalaciones y todas aquellas de tipo técnico establecidas en la NTE-IFA/1975; la del Ministerio de Industria de 9 de diciembre de 1975; el Decreto 928/1979 de 15 de marzo de la Presidencia del Gobierno y demás normativa vigente, además de los criterios generales adoptados por la entidad suministradora.

b) Las dimensiones de las redes de servicio se realizarán para un consumo de agua de 300 litros/habitante/día.

Artículo 13.- Condiciones técnicas del Saneamiento y Evacuación de Aguas residuales,

a) Será de aplicación la Norma Tecnológica NTE-ISA/1973 y demás normativa vigente, además de los criterios generales adoptados por el Ayuntamiento de Amurrio.

b) El cálculo de las secciones garantizará una velocidad entre 0,5 y 3 m/seg. pudiendo aumentar ésta, en el caso de tuberías de gran dureza de revestimiento si las circunstancias así lo aconsejaran.

c) Erregistro putzuak ipiniko dira, euren artean, behar bezala arazoitakotasun kasu jakin batzuetan izan ezik, gehienez ere 50 m-ko tartetik utziz.

14. artikulua.- Energia elektrikoaren horniduraren eta herri argiteriaren baldintza teknikoak.

a) Arau hauek aplikatuko dira: behe tentsioaren erregelamendu elektroteknikoa; jarraibide osagarriak (MI/BT-73) eta indarrean dagoen gainerako araudia; horiez gain, Amurrioko Udalak erabakitako irizpide orokorrak eta zerbitzuaz hornitzen duen enpresak (Iberdrola, S.A.) ezarritako irizpideak ere bai.

b) Transformazio Zentroak egitean, beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dira zarata, dardara, segurtasun, etab.en inguruan.

c) Transformazio Zentrotik argiteria publikorako hainbat adar abiatuko dira, eta horiek, eraikinetara argindarra hornitzekoetatik bereiz egongo dira.

d) Kableak lurpetik joango dira, batez beste 40 m inguruko tarte batera egongo diren kutxetak izango dituzte, eta gainera, erregistroak ere bai, argiteria publikoko sarearen zutabe edo habe bakoitzean.

e) Eraikinetara hornitzeko banaketa-sareek 380/220 w-ko tentsioa izango dute.

f) Bide publikoetako batez besteko argitasuna, bertarako aurrez ikusitako batak besteko trafikoaren (ibilgailuak zein pertsonak) intentsitatea eta gune berdeak kontuan hartuta zehaztuko da. Datu orientagarri gisa ezarri da gune publiko guztietako batez besteko intentsitatea, batez ere ibilgailuentzako bideetan, 25 lux-ekoa izango dela, eta gune berdeetan gaueko 12:00etatik aurrera hori murriztea onartuko da.

Bidegurutzetako argitasuna, bertara biltzen diren bideetan dagoen intentsitate handieneko argitasuna baino %20 handiagoa izango da.

BEPBan erabili beharreko luminaria-kopurua orientabide gisa adierazten da, eta hauek urbanizazio-proiektuan behar bezala justifikatu behar dira.

15. artikulua.- Berdegunerako eta Zuhaitz-landaketarako proiektuaren baldintza teknikoak.

a) Zona lorategidunak argi eta garbi berezita eta mugatuta egongo dira, zintarrien edo ondo kontserbatuko direla ziurtatzen duten beste sistema batzuen bitartez.

b) Berdegunean, Erabilera Publikoko Espazio Libre Linealetan eta Bidesarean egiten diren zuhaitz-landaketak, zuhaitzen garapen egokia ziurtatzeko beharrezkoa den espazioarekin egingo dira.

Batez ere hostoerorkorreko espezieak landatuko dira, neguan eguzkiak jo dezan, berdegunean bestelako espezieak landa badaituzke ere. Honez gain, zuhaitz horiek hazten direnean ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa ez oztopatzea zainduko da, bai eta argiteria publikoaren argiztapenari eta bere uniformetasunari kalte handirik ez egitea ere. Espeziea aukeratzekoan zenbait puntu kontuan izango dira: kontserbazioa eta mantentzea erraza izatea (ezaugarri klimatikoetara eta mikroklimalara egokitzea), erortzen den hostoaren tamainak saneamenduko hustubideak ez oztopatzea, eta lurra bustita dagoenean oinezkoentzat irristatzeko arriskurik ez sortzea.

c) Proiektuak beharrezkoak diren babes-elementuak barne hartuko ditu, garapenaren hasierako fasean zuhaitzak ez hondatzeko, batez ere bideen inguruetan eta oinezkoak sarri igaroko diren eremuetan

16. artikulua.- Gas naturala banatzeko proiektuaren baldintza teknikoak.

Konpentsazio batzordeak Sektorean zerbitzu hau ezartzea erabakitzen badu, gas naturala banatzeko sarea, hala dagokion urbanizazio-proiektuan nola obren burutzapenean, ondoko arau hauetara egokituko da: Gas Erregarrien Zerbitzu Publikoaren Erregelamendu Orokorra (urriaren 26ko 2913/1973 Dekretua), biztanduta dauden etxebizitzetako Gas Instalazioen Oinarrizko Arauak (1973ko martxoak 29), gas-erregaien sare eta hartuneen erregelamendua eta MIG jarraibideak, 1974ko azarokoak, eta indarrean dagoen gainontzeko araudia. Honez gain, enpresa hornitzailearen arauak aplikatuko dira.

17. artikulua.- Komunikazio-zerbitzuaren sare-proiektuaren baldintza teknikoak.

Komunikazio-zerbitzuaren banaketa-sarea, hala dagokion proiektuan nola obren burutzapenean, indarrean dagoen telekomunikazioei buruzko Arauari egokitu beharko zaio.

c) Se dispondrán pozos de registro con distancias máximas de 50 m salvo casos puntuales debidamente justificados.

Artículo 14.- Condiciones técnicas sobre Suministro de Energía Eléctrica y Alumbrado Público.

a) Será de aplicación el Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión; las Instrucciones complementarias (MI-BT-73) y demás normativa obligatoria vigente, además de los criterios generales adoptados tanto por el Ayuntamiento de Amurrio, como por la compañía suministradora del servicio (Iberdrola, S.A.).

b) En la ejecución de los Centros de Transformación se adoptarán cuantas medidas sean precisas contra ruidos, vibraciones, seguridad, etc.

c) De los Centros de Transformación se tomarán los ramales para el alumbrado público, que serán independientes de los de suministro de energía eléctrica a las edificaciones.

d) El tendido de cables será subterráneo, con arquetas a una distancia media aproximada de 40 m y además registros en cada báculo o columna de la red de alumbrado público.

e) Las redes de distribución para el suministro de las edificaciones serán con tensión 380/220 W.

f) Las iluminaciones medias de las vías públicas se calcularán de acuerdo con la intensidad media del tráfico previsto (en viario rodado y peatonal), y del uso (zona verde). Como datos orientativos se establecen que la intensidad media en todos los espacios públicos -sobre todo en el viario rodado- será de 25 lux, admitiéndose en las zonas verdes, una reducción a partir de las 12:00 horas de la noche.

Los encuentros de vías podrán tener un aumento del 20% respecto a la iluminación de la vía de mayor intensidad de entre los concurrentes.

En el PERI se indican con carácter meramente orientativo las luminarias a emplear, debiendo justificarse adecuadamente en el Proyecto de Urbanización.

Artículo 15.- Condiciones Técnicas del Proyecto de Zona Verde y Plantación de Arbolado.

a) Las zonas ajardinadas quedarán claramente diferenciadas y delimitadas mediante bordillos u otros sistemas que garanticen su buena conservación.

b) Las plantaciones de arbolado en la Zona Verde, Espacio Libre de Uso Público y Red Viaria, se efectuarán con el espacio necesario para garantizar su perfecto y total desarrollo.

Se adoptarán preferentemente especies de hoja caduca en las calles, a fin de permitir el soleamiento invernal, pudiendo recurrir a especies diferentes en la zona verde. Se tendrá en cuenta además que en su desarrollo el arbolado no entorpezca la circulación de vehículos y peatones, así como que no perjudique sensiblemente la iluminación del alumbrado público, ni su uniformidad. Se considerará la selección de la especie cara a su conservación y mantenimiento (adecuado a las características climáticas y el microclima), además de que el tamaño de la hoja caduca, no ciegue los sumideros de saneamiento, ni con el suelo mojado pueda constituir peligro de resbalón para los peatones.

c) El proyecto contemplará los elementos precisos de protección en evitación del deterioro del arbolado durante la fase inicial de desarrollo, especialmente en la red viaria y áreas de frecuente paso peatonal.

Artículo 16.- Condiciones Técnicas del Proyecto de Distribución de Gas Natural.

En el caso de que la Junta de Compensación acordara dotar al polígono de este servicio, la red de distribución de gas natural se adaptará tanto en el Proyecto de Urbanización correspondiente, como en la ejecución de las obras al Reglamento General del Servicio Público de Gases Combustibles (Decreto 2913/1973 de 26 de Octubre), a las Normas Básicas de Instalaciones de Gas en edificios habitados (de 29 de marzo de 1973), Reglamento de redes y acometidas de combustibles gaseosos e instrucciones MIG, de noviembre de 1974 y demás normativa vigente. Además se aplicarán las normas propias de la compañía suministradora.

Artículo 17.- Condiciones Técnicas del Proyecto de Redes del Servicio de Telecomunicación.

La red de distribución del servicio de telecomunicaciones deberá adaptarse tanto en el correspondiente proyecto como en la ejecución de las obras, a la Norma vigente sobre telecomunicaciones.

III.4.- ERAIKUNTZAREN ETA ERABILEREN ORDENANTZAK

18. artikulua.- Xedapen orokorra.

Gune bakoitzerako berariazko ordenantzen hurrengo kapituluan berariaz xedatzen ez den guztiari dagokionez, Amurrioko Udalaren Ordezko Arauei jarraituko zaio.

III.5.- GUNE BAKOITZERAKO BERARIAZKO ORDENANTZAK

19. artikulua. - Dentsitate handiko bizitegiak eraikitze aldea -RAD-1.

- 3. eta 4. planoetan zehazten dira kanpoko eta barruko lerrokadurak.

- Sotoan, beheko eta hiru solairuetan gauzatuko da.

- Beheko solairuan atariak eta merkataritza lokalak egongo dira, zehaztutako lerrokaduren barruan eta gainerako aldea itxitako atarpea izango da.

- Sotoko solairuetan lurzati osoa eraiki ahal izango da.

- Estalki arteko solairuak trasteleku eta instalazioen erabilera eskusiboa edukiko du.

20. artikulua.- Familia bakarreko etxebizitza atxikien aldea -RVA-1, RVA-2 y RVA-3.

- Eraikinaren lerrokadura, sestra, azalera, altuera eta mugimendu areak 3. eta 4. planoetan datoz jasota.

- Hegalkinek ezingo dituzte eraikinaren mugimendu eremua zehazten duten lerroak gainditu.

- Halaber, sotoaren solairuak ez ditu lerro horiek gaindituko.

- Marraztutako sotoetarako sarrerak gutxitu ahal izango dira.

- Lurzati bakoitzean dauden etxebizitzaren arteko banaketa orientagarria da, %5ean alda baitaiteke.

21. artikulua.- Familia bakarreko etxebizitza atxikien aldea RVA-4, RVA-5, RVA-6, RVA-7 eta RVA-8.

- Hegalkinek ezingo dituzte eraikinaren mugimendu eremua zehazten duten lerroak gainditu.

- Eraikinak ez du bidearen (VP-3 kalea) aurreko lerrokadurarekin %50 baino kontaktu handiagoa izango.

- Tipologia horietan garajea beheko solairuan egongo da, ez da sotoan egiten utziko, ibaia oso hurbil baitago.

- Lurzati bakoitzean dauden etxebizitzaren arteko banaketa orientagarria da, %5ean alda baitaiteke.

HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

630

29/2003 FORU AGINDUA, urtarrilaren 20koa, Llodioiko udalerriko Gardeagotxi auzoan familiabakarreko etxebizitza bat eraikitze espedienteari buruzkoa.

AURREKARIAK

Lehena.- Manuel Uriondo Iruetagoiena jaunak baimena eskatu dio Llodioiko Udalarari Gardeagotxi auzoan familiabakarreko etxebizitza bat eraikitze. Etxea eraikiko den lurzorua urbanizaezintzat sailkatuta dago eta "egon dauden bizitegi-guneen zona osagarri" gisa kalifikatuta.

Bigarrena.- Llodioiko udalak espedientea bidali zigun, Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduak 44. artikuluan agintzen duen izapidea betetzearren, eta aldeko txostena egin du baimen eskabidearen gainean.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehena.- Sail honek azertzen ari garen espedientea ebazteko aginpidea dauka, uztailearen 28ko Diputatu nagusiaren 149/1999 Foru Dekretuak dioenarekin bat.

Bigarrena.- Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduaren 44. artikuluan ezartzen duenarekin bat, baimendu egin daiteke lurzoru urbanizaezinean familiabakarreko etxebizitzetarako eraikin isolatuak eraikitzea, artikuluko horretan bertan ezarritako prozeduraz baliatuz. Izan ere, ebazteko eskumena duen organoak hasierako onarpena eman behar du lehenengo, eta gero jendaurrean jarri behar da, 15 eguneko epean, eskatutako baimenari buruzko behin betiko ebazpena eman aurretik.

III.4.- ORDENANZAS DE EDIFICACIÓN Y USOS

Artículo 18.- De Carácter General.

En todo lo no regulado específicamente por el capítulo siguiente de estas Ordenanzas -referido a particularidades para cada zona, se estará a lo dispuesto en las NN.SS. de Amurrio.

III.5.- ORDENANZAS PARTICULARES PARA CADA ZONA

Artículo 19.- Zonas de Edificación Residencial de alta densidad-RAD-1.

- Viene definida en los planos 3 y 4 por su alineación exterior e interior.

- Se puede desarrollar en plantas de sótano, baja y tres pisos.

- En planta baja se situarán los portales y locales comerciales dentro de las alineaciones fijadas quedando el resto como porche cubierto.

- En plantas de sótano se podrá construir la totalidad de la parcela.

- La planta de entrecubierta tendrá el uso exclusivo de trasteros e instalaciones.

Artículo 20.- Zona de viviendas unifamiliares adosadas-RVA-1, RVA-2 y RVA-3.

- Las alineaciones, rasantes, superficie, alturas y áreas de movimientos de la edificación vienen especificadas en los planos 3 y 4.

- Los vuelos no podrán sobrepasar las líneas que definen el área de movimiento de la edificación.

- Asimismo la planta de sótano no superará dichas líneas.

- Los accesos a sótano grafiados podrán reducirse en número.

- La separación entre viviendas dentro de cada parcela es orientativa pudiendo modificarse en una proporción menor del 5%.

Artículo 21.- Zona de viviendas unifamiliares adosadas RVA-4, RVA-5, RVA-6, RVA-7 y RVA-8.

- Los vuelos no podrán sobrepasar las líneas que definen el área de movimiento de la edificación.

- El contacto de la edificación con la alineación al frente del viario (calle VP-3) no sobrepasará el 50%.

- Para esta tipología se prevé el garaje en planta baja, no admitiéndose usos en planta de sótano dada la proximidad del cauce del río.

- La separación entre viviendas dentro de cada parcela es orientativa pudiendo modificarse en una proporción del 5%.

DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y URBANISMO

630

ORDEN FORAL 29/2003, de 20 de enero, en relación con el expediente de construcción de una vivienda unifamiliar, en Gardeagotxi, municipio de Llodio.

ANTECEDENTES

Primero.- Don Manuel Uriondo Iruetagoiena solicitó ante el Ayuntamiento de Llodio licencia para la construcción de una vivienda unifamiliar en Gardeagotxi, en terreno clasificado como No Urbanizable y calificado como "zona de complemento de núcleos residenciales existentes".

Segundo.- El Ayuntamiento de Llodio remitió el expediente para cumplimiento del trámite autorizador que ordena el artículo 44 del Reglamento de Gestión Urbanística, e informando favorablemente la solicitud de licencia.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- Este Departamento es competente para resolver el expediente que se examina de conformidad con el Decreto Foral del Diputado General número 149/1999, de 28 de julio.

Segundo.- De acuerdo con lo establecido en el artículo 44 del Reglamento de Gestión Urbanística, para el suelo no urbanizable, podrán autorizarse edificios aislados destinados a vivienda familiar, mediante el procedimiento previsto en el propio artículo, consistente en la aprobación inicial por el órgano competente para resolver y en el sometimiento a información pública durante 15 días, antes de adoptar la resolución definitiva acerca de la autorización instada.